



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

118. zenbakia

2022ko martxoak 11 – martxoak 24

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

Batzar Orokorra egin du Soziolinguistika Klusterrak Erreterian

Soziolinguistika Klusterrak bere XVIII. Batzar Orokorra egin du martxoaren 17an, Erreteririako Xenpelar Etxean. Klusterreko bazkide den Erreteririako Udalaren izenean Aizpea Otaegi alkateak harrera egin die batzarreko parte hartzaileei; eta hizkuntza-politika zinegotzi Itziar Ostolaza bertaratu zen.

UEMAko eta Tolosaldeko herrietan hizkuntzen erabileraren kale neurketak egin dira

Erabilera orokorrari begiratuta, antzeko emaitza eman dute 2017ko eta 2021eko neurketek: bostetik hiru euskaraz -%61,1-. Datu bera eman zuen 2017ko neurketak ere. Beraz, ez da aldatu erabilera orokorra, baina horren azpian izan dira mugimenduak.

60 orduan ulermena lortzeko Uler-saioak metodologiaren balantze ona, Bergarako Udal Euskaltegian

[Goiena] Otsailan amaitu zuten lehen esperientzia, eta ia ikasle guztiek lortu zuten A2 maila ulermenean (bideo-erreportaia).

Ikerketak

Euskal Hedabideen Urtekaria 2021 argitaratu du Behategiak

[NOR ikerketa taldea] 2021 urteak digitala den hodeiertza utzi du agerian nabarmen, eta hori da aurtengo ale honetan gehien errepikatzen den ideietako bat, berrikuntzarako eta eraldaketarako behararekin batera.

A. Urrutia: "Euskararen etorkizunari buruz gogoeta egiteko balio du gidaliburu honek"

[Euskaltzaindia] Euskaltzaindiak azken 50 urteetan euskararen normatibizazioaren arloan egindako lana biltzen duen gidaliburu bat plazaratu du, Iberoamericana Vervuert argitaletxearekin batera: 'Arantzazutik mundu zabalera. Euskararen normatibizazioa: 1968-2018'.

3 gizon eta 3 emakume ez da genero ikuspegia ikerketan txertatzea

[Orkestra] Post hau irakurtzean zure gogoeta bada "Gai hau zinez interesgarria da, baina nire ikergaietan ez dago genero ikuspegia txertatzeko modurik" irakurri testu hau eta sartu partekatzen ditugun gidetan.

Enara Eizagirre: "Udalaren esku jarri dugu Gasteizko 3.154 haur eta nerabek eskolaz kanpoko ekintzatan dituzten hizkuntza-ohituren gaineko datu basea"

[Euskaraba] Aztiker enpresak, Gasteizko Udalaren eskariz, aztertu du Gasteizko haur eta nerabeei (HHTik DBH bukatu arte) eskolaz kanpo zer jarduerak egiten dituzten, zer lekutan eta zer hizkuntzatan.

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Udaltopen 14. edizioa "Eskolak bakarrik ezin badu..." bidegurutzeari irtenbidea topatzen ahaleginduko da

[Udaltop] Udaltopek Lasarte-Oriako plaza berreskuratuko du hamalagarren edizioan. Bi urteko etenaldiaren ondoren, aurtengo ekitaldia aurrez aurre eta online jarraitu ahaliko da, maiatzaren 12an eta 13an. Izen-emate epea dagoeneko zabalik da maiatzaren 3ra arte.

Marina Massaguer: «No catalanoparlants a Catalunya: ideologies i representacions de les dinàmiques sociolingüístiques» (Seminari del CUSC-UB)

[CUSC-UB] Divendres vinent, tenim una nova sessió del Seminari del CUSC-UB. La xerrada serà el 25 de març a les 12:00 i l'enllaç és el següent: <https://t.co/7KsRdH8epT>.

"Euskararen ingurune digitala. Gomendioak 2021-2024"

[Eusko Jaurlaritza] "Euskararen ingurune digitala. Gomendioak 2021-2024" dokumentuaren aurkezpena eskuragarri dago jadanik, hizkuntza plangintzan edota normalizazioan lanean ari direnentzat.

"XII. Euskararen sozializazioa eta transmisioa mintegia" ikusgai

[eta Kitto] 2022an mintegian kultura, kulturantzatasuna eta erabilera izan ziren bereziki landu ziren gaiak eta dagoeneko ikusgai dago martxoaren 16an egin zen mintegiaren bideoa.

—

Liburuak eta artikulu zientifikoak

New speakers and Language Making: conscious creation of a colloquial Basque register in the city of Bilbao

[International Journal of the Sociology of Language] This article examines the processes of Language and Speaker Making in the revitalization context of the Basque Country. The focus is on a group of new Basque speakers who, as active agents, engage in grassroots Language Making by literally making their own variety of colloquial Basque for their intragroup use.

Professional Development through Teacher Research: Stories from Language Teacher Educators

[Multilingual Matters] This volume aims to understand how language teacher educators around the world continue developing professionally by examining their own teaching practices.

Ecolinguistics: A half-century overview

[Journal of World Languages] This paper aims to examine the half-century development of ecolinguistics by reviewing its backgrounds, definitions, strands, and approaches, and also briefly previewing its future horizons.

Language shift and language (re)vitalisation: the roles played by women and men in Northern Fenno-Scandia

[Multilingua] The research question of the present paper is the following: to what degree (if any) is gender relevant as an explanatory factor in the process of assimilation and the process of (re)vitalisation of indigenous and minority languages in northern Fenno-Scandia.

"At risk" languages and the road to recovery: a case from the Yukon

[Journal of Multilingual and Multicultural Development] This article argues that insecurities about language are ultimately insecurities about other vulnerabilities, including the shifting political-moral terrain of the nation-state and First Nations.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Nokaren aberastasuna euskararentzat

[EMUN] Begoña Echeverriak nokaren erabilera berreskuratu nahi du, emazte bati euskaraz hitz egiteko modu intimoa baita. Soziolinguista eta Kaliforniako Unibertsitateko irakasle lanarekin batera, Baztango euskal emigranteen alaba honek, Noka hirukote musikala sortu zuen duela 25 urte Kalifornian, bera bezala jaiotako bi lagunekin.

HIBIL ikastaldiko partaideak arrastoa uzten

[Garabide] Aurreko astean eman genion hasiera HIBIL –Hizkuntza Gutxituak Biziberritzeko Lankidetzaren baitako hilabeteko egonaldia. 12 komunitate linguistikoko kide diren 20 partaideak gurekin ari dira saio teorikoetan eta, hara eta hona, euskalgintzako eremu ezberdinetako entitateak bisitatzen.

Canada must accommodate Indigenous and minority languages to be truly multicultural

[The Conversation] The time has come for Canada to revisit its approach to languages and there is no better time for this conversation.



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala